



Dpto. Igualdad y Acción Social
Berdintasuna eta Gizarte Ekintza Saila

VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN UDALEERRIAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA KASUETAN JARDUTEKO UDAL PROTOKOLOA



Dpto. Igualdad y Acción Social
Berdintasuna eta Gizarte Ekintza Saila

TELEFONO ERABILGARRIAK

➤ **GIZARTE EKINTZA ETA BERDINTASUN SAILA:** 94. 486. 22. 50

➤ **UDALTZAINGOA:** 94. 486. 26. 44

➤ **SESTAOKO ERTZAIN-ETXEA:** 94. 406. 34. 00

➤ **EMAKUNDE:** 94. 501.67. 00

➤ **EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN
EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO
TELEFONOA**

: 900. 840. 111

➤ **URGENTZIAKO ARRETA ZERBITZUAK:**

112

➤ **GURUTZETAKO OSPITALEA:** 94. 600. 60. 00

➤ **ZUTITU:** 94. 445. 07. 60

➤ **BARAKALDOKO GUARDIAKO
EPAITEGIA:** 94. 400. 10. 09

➤ **GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN ARRETA 016 (Deiak ez du arrastorik uzten fakturan)**

- **Whastapp bidezko arreta ere badago : 600 000 016**



Dpto. Igualdad y Acción Social
Berdintasuna eta Gizarte Ekintza Saila

1.- SARRERA

Protokolo honen helburua Valle de Trápaga-Trapagaranen genero-indarkeria eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arreta-zerbitzu anitzen jardueretarako jarraibideak ezartzea da, haien beharrei era koordinatuan erantzuteko. Protokolo hau errealitate-aniztasunera egokitzeko asmoz sortu da; izan ere, ager daitezkeen egoera guztietarako irtenbiderik izan ez arren, haiei erantzuna emateko bideak aurreikusten saiatuko da.

Adierazpide ezberdinak dituen emakumeen aurkako indarkeria emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dugu, eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa nabarmena eta onartezina da. Gizartean duen eragina eta biktimen arrasto fisiko zein psikologikoak ikusi besterik ez dugu, emakumeen aurkako indarkeria oso arazo politiko eta sozial konplexua dela ohartzeko.

Emakumeen aurka modu desberdinetan egiten den indarkeria haien osotasun fisiko eta moralaren aurkako atentatu larria da eta pertsona gisa duten duintasuaren aurkako zuzeneko eraso. Hortaz, emakumeen giza-eskubideen bortxaketa larri baten aurrean gaude eta garrantzi izugarri bateko gizarte arazo baten aurrean, kontuan hartuta gure gizartean duen eragina eta biktimetan sortzen dituzten ondorio fisiko zein psikologikoen larritasuna.

Tamalez gure udalerria ere ez dago gizarte gaitz honetatik libre. Denboran zehar sistematikoki errepikatzen dira biktimizazioak eta genero indarkeriaren biktimen kasu berriak agertzen dira.

Eraso mota hauek gehienetan familia barruan edota eremu afektiboan gertatzen dira, eta, gainera, tradizioz gizartearen aldetik izan duten tolerantzia maila handia izan da. Hau dela eta, biktimek maiz defentsarik gabe ikusten dute beren burua. Beraz, ezinbestekoa da era koordinatuan diziplina anitzeko eremuetan esku hartzea, babesa eta osoko arreta bermatzeko.

Horiek horrela, Emakundek sustatuak, EAE n I. eta II. Erakunde arteko Hitzarmenak sinatu dira etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko. Akordio honen helburua, erakunde arteko kordinazioa hobetzeaz gain, EAE osoan biktimen arretan nahiz jarduera-eremuetan inplikaturako erakunde guztientzako jarraibide homogeneoak ezartzea ere bada: polizia eta osasun-arloetan, eremu juridikoan, abokatuen elkargoan, gizarte-zerbitzuetan eta hezkuntzan, hain zuzen ere.

Koordinazio-protokolo hau esku-hartze eremuen arteko akordio gisa mahaigaineratu da, Valle de Trápaga-Trapagarango emakumeen aurkako tratatu txarren aurreko jarduerak, bai protokolo eta lehen aipaturako legeen aldaketan ondorioz, bai erabilitako lankidetzak-akordio eta bestelako tresna juridikoen ondorioz sortutako inguruabar berrietara egokitzeko, hain justu ere.

Beraz, ezarritako koordinazio-mekanismoek herri-mailako prozesu asistentzian parte hartzen duten arreta-zerbitzuak (Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak eta Ertzaintza) hartuko dituzte barne.



2.- ARLO TEORIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

2.1.-DEFINIZIOA

Nazio Batuen Biltzar Orokorrak “Emakumearen aurkako indarkeria erauztearen inguruko adierazpenean” (1-2 artikulua) honela definitu zuen: “Emakume izatean oinarritutako indarkeria-ekintza oro, baldin eta ondorio gisa emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa badakarkio, baita ekintza horiek egiteko mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere gauzatzen badira, bai bizimodu publikoan, bai pribatuan”.

Esan daiteke, beraz, emakumearen aurkako indarkeriak, familian edo gizartean gertatzen den indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa ez ezik, Estatuak eraginda edota onartutakoak ere hartzen dituela baitan.

Hona hemen Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) **genero - indarkeriaren** definizioa: *“Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak, diskriminazioa eta botere-harremana iraunarazten dituen emakumeen aurkako indarkeria: emakumezkoa izateagatik mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizimodu publikoan edo pribatuan”.*

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa izango da erakundearen arteko koordinazioari ekiteko lege markoa, hantxe definitze baitira ondorengo kontzeptuak:

Genero indarkeria. 2004ko abenduaren 29an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaraturiko Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan agertzen den definizioa hau da: “Indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, gizonezkoek beren ezkontide diren edo izan diren emakumeei, edo haiekin antzeko maitasun-harremanak dituzten edo izan dituzten emakumeei ezartzen dizkietenak, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan.”

Uztailaren 22ko 8/2015 Legeak, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoak bere hirugarren azken xedapenean abenduaren 28ko 1/2004 Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren aldaketa ezartzen du adin txikikoak biktimatzat hartzeko, indarkeriaren eraginpean egoteagatik.

Europako Kontseiluak honela definitzen du **etxeko indarkeria**: *“Edozein indarkeria-modu, fisikoa, sexuala edo psikologikoa, familiako kideren baten segurtasunari, ongizateari edo askatasunari berari arriskua dakarkiona, eta nortasunaren garapenari kalte handia egiten diona”.*



Etxeko indarkeria. Istanbulko 2014ko hitzarmenaren arabera: “Familian edo etxean edo ezkontide edo egitatezko bikote ohi edo oraingoan barnean gertatzen diren indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko egintza guztiak dira etxeko indarkeria, berdin diolarik delituaren egilea biktimarekin bizi den edo bizi izan den.”

Zigor Kodearen 173.2 artikulua: “Norbaitek ohikotasunez indarkeria fisiko edo psikikoa erabiltzen badu ezkontidea den edo izan denaren aurka, edota antzeko maitasun-harremanez berarekin egonkor loturik dagoen edo egon izan den pertsonaren aurka, elkarrekin bizi ez arren; edota odol, adopzio nahiz ezkontza bidezko ahaidetasuna dela medio, haren nahiz beraren ezkontidearen edo harekin bizi denaren ondorengo, aurreko edo neba-arreben aurka; edota harekin bizi diren nahiz haren ezkontidearen edo berarekin bizi denaren guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo egitezko harreraren menpe dauden adingabe edo ezgaien aurka; edota beste edozein pertsonaren aurka, pertsona hori haren familia-elkarbizitzaren gunean sartuta badago”

Erakundearteko II Akordioaren arabera emakumeen aurkako etxeko tratatu txartzat jotzen da emakume nerabe edo helduaren aurka erabiltzen den indarkeria fisiko, psikikoa, sexuala eta beste edozein motatakoa, harreman familiar edo lehenengo edo oraingo harreman afektiboaren barruan, haren ondorioz emakumearen osasun fisiko edo psikikoak eragina eduki balezake.

Genero-indarkeria senarrek, bikotekide edo bikotekide ohiek emakumeei egiten dizkieten duintasuna eta askatasunaren aurkako eraso intentzional eta errepikatuetan (fisikoa, psikologikoa, sexuala edo bestelakoa) gauzatzen da.

Ez da etxeko indarkeria, berorrek edozein familiakideren aurka gertatzen diren indarkeria-adierazpen guztiak biltzen baititu.



2.2.- EZAUGARRIAK

Emakumearen aurkako indarkeriak bestelako indarkeria motetatik bereizten duten berariazko ezaugarriak ditu. Honek mugak ezartzen eta eraginkorrago jokatzeko lagunduko digu.

Emakumearen kontrako indarkeriaren ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Patriarka-eredu batek eragindako gizon eta emakumeen arteko desberdintasunean du oinarria.
- Gehienetan gizarteari ez zaio ezagutzero ematen.
- Emakumea zigortu eta kontrolatzeko-mekanismo gisa erabiltzen da.
- Jasaten duenarengan errudun-ustea sorrarazten du.

Genero-indarkeriak erasotzailea eta biktimaren arteko mendekotasun/nagusitasun harremana eragin ohi du. Prozesu honek baditu aldiak eta baldintza jakin batzuk.

Emakumearen aurkako indarkeriatzat hartzeko bete beharreko lau **baldintzak** honako hauek dira:

- **Erasotzailea** gizona da.
- **Biktima** emakumezkoa da.
- **Arrazoia** da gizarteak generoen artean ezarritako desberdintasunak eragindako botere- harremana, hau da, gizonaren nagusitasuna eta emakumearen mendekotasuna.
- **Helburua** da emakumezkoak menderatzea eta kontrolatzea.

Senidea pertsonen arteko harremanen oinarriak eraikitzen diren unitatea izanik, emakumearen aurkako indarkeriak familia gunean duen eragina oso handia da. Beraz, bere osotasunean egin behar zaio aurre, biktima guztiei (emakumeari, neskatoei, mutikoei eta gainerako mendekoei) arreta emanez.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere bortizkeria horren biktima diren aldetik, babes-sistemak kontuan hartu eta artatu egin behar ditu.

Badira biktimak honako arrazoiengatik: batzuetan erasoak haiek berek jasotzen dutelako, gurasoen arteko indarkeria ikusten dutelako, edo beren garapenari kalte egiten dion botere- abusuaren oinarritutako giro bortitzean bizi direlako.

Arlo pribatuko indarkeria ez da bat-batean sortzen. Tratu txarren emaile bakoitzak baditu bere taktikak kontrolatzeko eta, gainera, orokorrean tratu txarrena hain prozesu motela da, ezen zantzuak erdi-ekutuan gelditzen direnez, oso zailak baitira identifikatzen. Harremanaren hasieran, kontrola asmo onen azpian ezkutatuta egongo



da eta ez da oso

zorrotza izango; beraz, nekez antzemango da argi eta garbi.

2.3.- PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOAK

Honako puntuak kontuan harturik:

Honako puntuak kontuan harturik:

- arlo honen ezagutzaren prozesuan aurrera egin ahala, adierazteko hainbat termino berri agertuz joan dela,
- proposamen honek izendatzeko termino argi eta bateratuak eskaintzeaz gain, interes politikoak adierazi ere egiten dituela, eta
- EAEn badela 2005eko Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak egindako proposamena, baita emakumearen aurkako indarkeriaren eremuan delitu-jokabideetat har daitezkeen egintzak ulertzeko modua sistematizatzen duen legeria ere,

Dokumentu honetan honako terminologia erabiliko da:

- **Genero edo emakumearen aurkako indarkeria:** gizonezkoen eta emakumezkoen arteko nagusitasun-hierarkian oinarritutako kontrol eta botere-abusuaren adierazpen bortitz guztiak.
- **Tratu txar fisikoa:** apropos edota behin eta berriz egiten den eta biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetzen duen erasoa.
- **Tratu txar psikologiko edo emozionala:** emakumearen erabakiak, usteak, jarrerak eta jokabideak kontrolatzea, baliogabetzea eta gutxiestea helburu duten egintzak edo ez-egiteak.
- **Sexu-indarkeria:** biktimaren baimenik gabe egiten diren sexu-jardueri deritze.
Larderia, gogorkeria, xantaia, mehatxu edota bere borondatearen kontrako bestelako mekanismoetan gertatzen dira.
- **Tratu txar ekonomikoa:** emakumeak alderdi ekonomikoan hartzen dituen jarrera, jokabideak eta erabakiak kontrolatzea helburu duten egintza eta ez-egiteak: komuneko ondasunetan, lanean, pentsioan...
- **Gizartean gertatzen den indarkeria:** biktimaren bakartzea da; ez du giza- harremanik, familia edo lagunengandik urrunarazten dute edo beren aurrean umilatzen dute.
- **Emakumearen aurkako sexu-indarkeria:** emakume nerabe edo heldu bati zuzendutako onetsi gabeko edo derrigortutako edonolako sexu-portaera.



II. Akordioaren arabera emakumearen aurkako indarkeria sexualtzat jotzen da emakume nerabe edo helduaren aurka, haren baimenik gabe, egindako edozein portaera sexual. Ez da baliozkotzat hartuko 16 urtetik beherakoek emandako baimena, ezta konorterik gabe dauden pertsonena edo buruko ezintasuna dutenena edo biktimari askatasuna kentzen dion nagusitasun-egoera bat baliatuta lortu dena, zigor legerian aurreikusitakoaren arabera.

Sexu-askatasuna eta sexu-ukigabetasunaren aurkako **hiru delitu mota** bereizten dira:

- Sexu-erasoak: indarkeria edo larderia tarteko direla gertatzen diren erasoak dira. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak, hain zuzen. (ZK 178, ZK 179)
- Sexu-abusuak: indarkeriarik edo larderiarik gabe egiten diren erasoak dira. Erasotzailea biktimarengan duen nagusitasunaz edota engainuez baliatzen da. (ZK186 (<16), ZK 181 ZK 182 (16-18 urte))
- **Sexu-jazarpena:** sexu-erasoak dira, hitzezkoak, hitzik gabekoak edo fisikoak; lanean, eskolan edo antzeko eremuetan gertatzen dira giro umilagarri eta mehatxugarrian eta horien barruan sartzen da emakumeari mehatxu egitea bere egoera kaltetzearekin edo agintzea ,presioei amore emanaz gero, onuraren bat lortuko duela. (ZK 184)

3.- ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN EMAKUMEAK

A) Ezgaituak

Ezgaituak zaurgarritasun egoera larriagoan daude, alde batetik, gizonentzat egindako gizartean jasaten dituzten jarrera eta jokaerengatik, eta bestetik, ezgaitasunak berak eragiten dizkien honako baldintzengatik:

- Fisikoki bere burua defendatzeko ahulagoak izatea.
- Komunikazio-arazoak direla eta, tratu txarren berri emateko zailtasun gehiago izatea.
- Nagusiki komunikazio arazoek eta arkitektura-oztopoek eragiten dieten zailtasuna, informazio eta aholkularitza guneetara iristeko.
- Autoestimu baxuagoa eta bere buruaz duen emakumearen irudiaren gutxiestea.
- Ezgaitasunak emakumeek gizartean ezarrita duten rola jokatzeko sortzen dien ezintasuna.



- Laguntza eta arreta jasotzeko orduan, gainontzekoengandiko mendekotasuna handiagoa izatea.
- Zaintza eta loturak galtzeko beldurrak abusoa salatze beldurra dakar berez.
- Giza-estamentu batzuen aurrean horrelako ekintzak salatze beldurra, sinesgarritasun txikiagoa izatea.

B) Migratuak

Emakume migratuek talde heterogeneo eta bereziki zaugarria osatzen dute. Emakumezkoak eta gainera migratuak izateak dakartzan ondorioez gain, badira errealtate horri gehitu beharreko zenbait zailtasun eta desabantaila:

Nazionalitate, arraza, etnia edota jatorriagatiko bereizkeria ez ezik, hizkuntza ere gainditu beharreko oztopo handia da.

- Babesteko familia eta gizarte-sarerik eza, informazioa eta laguntza jasotzeko.
- Erasotzailearekiko mendekotasun ekonomikoa.
- Erakunde publikoak, babes-iturritzat barik, mehatxutzat jo ohi dituzte.
- Beldur dira genero-indarkeria dela eta jarritako salaketak ez ote dien eragingo erregulazio-prozesuan, edo ez ote dieten sinetsiko.
- Oztopo linguistikoak aparte utzita, indarkeria jasaten duten emakume migratuek beren ibilbidean aurkitzen duten oztoporik handiena atzeritarrei buruzko araugintzaren administrazio-egoera da. Horren arabera, erakundeen erantzuna eta babesa oso bestelakoak izan daitezke.

C) Adinekoak

Horiek emakumeak izateagatik eta adindunak izateagatik jaso dezakete bereizkeria. Beren egoerak eta ezaugarriek askotan isolatze soziala eragiten diete; ez dute informaziorik eta nola lortu ere ez dakite; halaber, ez dute beren egoera hobetzeko eskura dituzten baliabideak ezagutzerik.

4. LEGE ESPARRUA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak artatzeko lanen koordinazioa hobetzeko asmoa duen legeria nagusia, EAEko botere publikoen jardura uztartzen duena, hauxe da:

Emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan:

- i. Emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena. Istanbulgo protokoloa, 2011ko maiatzaren 11koa, estatu espainiarrak 2014ko apirilaren 11n berretsia, indarraldi osoan dagoena 2014ko abuztuaren 1a geroztik.



- ii. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa.
- iii. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa.

6/2011 Estatuko Fiskaltza Nagusiaren zirkularra. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko. Dagoeneko aipatutakoez gain, emakume atzerritarren aurkako indarkeriaren eremuan, ondorengo hauek ere badaude:

- i. 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta libertateei buruzkoa eta haien gizarteratzeari buruzkoa.
- ii. 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, apirilaren 20koa, 557/2011 Errege Dekretuak onartua. 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko kide diren Estatueto hiritarrak eta Europako Ereku Ekonomikoaren akordioaren parte diren beste estatu batzuetakoak Espainian sartu, libreki zirkulatu eta bizitzeari buruzkoa.

Eskumenak banantzeko eremuan:

- i. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- ii. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- iii. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- iv. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Esukal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa.
- v. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa. 19 artikuluko 7 puntua, berdintasun erakundeen eskumenei dagokiona.

Datuen babeserako eremuan:

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.

Adin txikikoak babesteko alorrean:

- i. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak artatu eta babestekoa.
- ii. 8/2015 Legea, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa, bere azken xedapenetako hirugarrenean ezartzen duena abenduaren 28ko Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren aldaketa.

Horiez gain, akordio hauek ere badaude:



- Emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak desagertarazteko Hitzarmenaren aukerako protokoloa, 1999.
- Etxeko tratatu txarren biktima diren emakumeentzako segurtasun plana, 2002-2004.
- Etxeko indarkeria edo genero indarkeriaren biktimak babeste aldera segurtasun indar eta kidegoak jarduteko eta organo judizialekin koordinatzeko Protokoloa, 2004.
- Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua ezartzeko protokoloa, 2003.
- Etxeko tratatu txarren biktimei abegi egiteko eta bizitokia emateko baliabideak hobetzeko programa, 2004-2005.
- Emakumeen aurkako etxeko tratatu txar eta indarkeria sexualaren aurrean jarraitu beharreko osasun protokoloa, 2008.
- Etxeko tratatu txarren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeekiko arreta hobetzeko II. erakunde arteko akordioa, 2009.

Eta lege-esparru honen arabera, batez ere, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Legean ezarritakoa betez, bere bikotekide edo bikotekide ohiaren aldetik zuzeneko indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen eskubideak ezartzen dira:

1. Emakume atzeritarren eskubideak (17.1 art.)
2. Informazioa edukitzeko eskubidea (18 art.)
3. Gizarte laguntza integralerako eskubidea (19 art.)
4. Sorospen juridiko doakoa, berehalakoa eta espezializatua (20 art.)
5. Lan eskubideak eta Gizarte Segurantzako prestazioak (21, 22 eta 23 art.)
6. Eskubide ekonomikoak (27 art.)
7. Etxebizitza babestuak eskuratzeko eta adinekoen egoitza publikoetan sartzeko lehentasuna (28 art.)
8. Seme-alabak berehala eskolaratzeko eskubidea (5 artikulua eta hamazazpigarren xedapen gehigarria).

Badaude beste eskubide batzuk ere aitortu egiten zaizkienak delituen biktima diren aldetik:

- Salaketa egiteko eskubidea.
- Babes agindua eskatzeko eskubidea, Etxeko Indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legearen arabera.
- Bere erasotzailearen aurrean ez deklaratzeko eskubidea eta bere segurtasuna eta ongizate emozionala bermatuko duten



- baliabide guztiak erabiltzekoa.
- Zigor prozeduran parte izateko eskubidea.
- Gauza itzultzeko, kaltea konpontzeko eta eragindako kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea.
- Epaian jarduketei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.
- Delitu biktimentzako laguntzak.

5.- JARDUTEKO PROTOKOLOA

5.1.- GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ARRETARAKO ETA ESKU-HARTZERAKO PRINTZPIO NAGUSIAK

Jarduera-protokolo honetan bildutako jarraibideak betetzekotan, parte hartzen duten erakunde eta profesionalak honako printzipioei heldu beharko diete:

▪ **Indarkeriarik gabe bizi izatea**

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekiko esku-hartzearen helburuak beti izan beharko du beren harreman afektiboak indarkeriarik gabe bizi ahal izatea. Horretarako, ezinbestekoa izango da bizi izandako erasoen ondorio latzak nork bere egitea, bai berak, bai seme-alabek (baldin baleude), bai bere inguruneko indarkeria horren biktimak izan diren beste batzuek. Salaketa, indarkeriarik gabeko bizitza eramateko tresna garrantzitsua den aldetik, prozesu baten barruan kokatu behar da, biktimaren segurtasunean duen eragina kontuan hartuta. Beraz, bikotearengandiko banantzea emakume bakoitzak hartu beharreko erabakia da, ez esku-hartzearen xedea.

▪ **Banakako eta osoko arreta**

Protokolo honetan aipatutako indarkeriaren biktima diren emakumeei eta bere menpekoentzako arretak egoera bortitzaren ondorioz sortzen diren beharrei emango die erantzuna. Horretarako, beren egoerari ondoen egokitzen diren zerbitzu eta prestazioetarako erraztasunak emango zaizkie.

▪ **Berdintasuna**

Arreta biktima guztiei bermatu beharko zaie. Ez da bereizkeriarik egingo egoera zibilagatik, sexu-joeragatik, adinagatik, sinesmen edo ideologiagatik, gutxiengo etniko nazional edo linguistiko baten partaide izateagatik, maila ekonomikoagatik, ezgaitasun fisiko, psikologiko edo zentzumenezkoa izateagatik, ez eta bestelako gizarte egoera batengatik ere. Halaber, beren egoeragatik osoko arreta eskuratzeko zailtasun gehien dituzten emakumeek beren eskubideen egikaritza bermatuta izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira; bereziki, emakume ezgaitu eta migratuen kasuan, administrazioan duten egoera edozein delarik ere. Beharrezkoa balitz,



udalaz gaineko prestazio- zerbitzuetara bideratuko lirateke.

Emakume ezgaituek informatzeko eta baliabideak eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko, kasuan kasuko egokitzapenak egingo dira: garraibideetarako laguntza, beraiekin joatea, keinu-hizkuntzako interpreteak, braillezko testuak, komunikazio handigarria, e.a. Era berean, emakume kanpotarren hizkuntza-oztopoak leuntzeko eta gainditzeko neurriak ere hartuko dira. Gogoraziko zaie garrantzitsua dela errolatzeko eskaria egitea gizarte-babesaren sareko oinarritzko prestazioak eskuratu ahal izateko.

Ezin da ahaztu, tratu txarrak jasandako emakumeekiko esku-hartzean egondako aurrerapausoak gorabehera, eguneko zerbitzu eta baliabideek mugak dituztela. Izan ere, nolabaiteko autonomia maila duten emakumeentzat diseinatuta daude. Aparteko zailtasunak dituzten emakumezkoek, berriz, baliabide horiek eskuratzeko aukera gutxiago dute eta batzuetan zerbitzu horietatik kanpo geratzen dira.

▪ **Prebentzioa**

Bildutako jarraibideak biktimen aurkako egoera bortitzak berriro gerta ez daitezen aplikatuko dira. Bai emakumeei, bai euren ardurapean dauden ume eta nerabeei, edo beren bizikidetzak unitatekoak diren menpeko helduei dagokienez.

▪ **Konfiantza**

Genero-indarkeria fisiko, psikiko edo sexuala jasaten duten emakume guztiek kasu guztietan jasoko dute arreta: salaketa jarrita edo ez, erabakiak hartzeko gai izanik edo ez, edo beren egoera adierazteko gai izanik edo ez. Zerbitzuetara behin baino gehiagotan jotzea konfiantza seinaleztat hartuko da eta eskura dauden zerbitzu guztiak eskainiko zaizkie.

▪ **Lehentasuna**

Lehentasuna laguntza eskatzen duten emakumeen arretak izango du. Horrela, zerbitzua berarengana joango da, esku-hartzea errazteko eta arintzeko.

▪ **Eraginkortasuna eta arintasuna**

Protokolo honetako jarraibideak aplikatzeko, antolaketa eraginkorra eta arina bermatu beharko da, horrelako egoeretan sortzen den premiari berehalakotasunez erantzuteko.

▪ **Segurtasuna eta babesa**

Lan-jardueratik eratorritako betebeharrak juridikoak, oinarritzko konpromiso etikoak dira, baita emakumezkoek merezi duten babesaren berma ere.

Esku-hartzean biktimaren osotasun pertsonalak izango du lehentasuna, bai babes fisikoa, bai datu-babesa ere. Jarduera horrek ez du jasandako edo jasaten ari diren erasoaren zigorgabetasuna ahalbidetuko.

Babes-neurriari dagokienez, salaketa prozesuak irauten duen bitartean, instalazio fisikoetan emakumeentzako segurtasun-guneak egongo dira, biktima eta erasotzailea



espazio berean batera ez egoteko.

▪ **Ahalduntzea eta normalkuntza**

Kasuan kasuko neurriak hartzeko momentuan, indarkeriaren biktima diren emakumeek autonomia pertsonala eta bizimodu normalizatua izan dezaten ahalegina egingo da.

▪ **Erantzukizuna**

Ez dugu ahaztu behar biktimen arretan parte hartzen dutenak beren nagusi edo gainbegiraleei lanean dituzten gabezien berri ematera behartuta daudela, baita gabeziok zuzentzeko beharrezkoak diren baliabideak eskatzera ere.

▪ **Adingabeen interesen defentsa**

Jarduera-protokoloa aplikatzeko garaian, biktimek beren ardurapean dituzten adingabeei

arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko, betiere umeei eta nerabeei arreta eta babesa emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legean xedatzen den bezala.

Bereziki, seme-alabak biktimak bikotekidearengandiko eraso bortitzak deklaratzeko dituen prozeduretan ez egotea bermatuko da. Eta baldin badaude, beren beharrei egokitutako arreta jasotzeko gunea eskaini beharko zaie.

▪ **Ahalik eta biktimizaziorik txikiena**

Protokoloan aipatzen den indarkeria jasan duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ekidin behar da, erakunde eta profesionalen zerbitzuek eragin ditzaketen eragozpenak ahalik eta neurri handienez gutxituz. Protokoloan aurreikusitako arreta eskaintzeko jarraibideak betetzea eta inplikaturako erakundeak koordinatzea profesionalen ardura izango da; biktimek ez dute inola ere ardura hori izango.

▪ **Datuen babesa**

Parte hartzen duten sailek bildutako datuak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera erabiliko dira.

5.2.- APLIKAZIO-EREMUA

Protokolo honek Valle Trápaga-Trapagaranen gertatzen diren genero-indarkeria edo sexu-erasoen kasuetarako udal jarduerak koordinatzeko prozedurak ezartzen ditu.

Protokoloaren ardatza arretaren arloa izango da. Arazo sozial horri bere osotasunean heltzeko berebiziko garrantzia duten bestelako eremuak (prebentzioa, sentsibilizazioa, prestakuntza, e.a.), gai honen inguruko udal jardueraren osagarria den Valle Trápaga-



Trapagarango Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako II. Planean garatuko dira.

5.3.- HELBURUAK

5.3.1.- Helburu orokorra

Valle Trápaga-Trapagarango emakumeek seguru, aske eta independente bizitzeko duten eskubidea bermatzeko erantzun eraginkorra ematea, eta erakunde laguntzaileen arteko koordinazioa hobetzea, emakume horiei babes eta arreta osoa bermatzeko.

Helburu honek emakume horien seme-alabak eta beren ardurapean dauden menpeko helduak ere hartzen ditu barnean.

Horrez gain, emakumeei indarkeriatik irteteko ibilbidean laguntzeka izan behar dela jarduketara helburu nagusia:

- ✓ Bizitako biolentziaren pertzepzioa areagotzea.
- ✓ Indarkeriarik gabeko bizitza bat eraikitze baliabide egokiak eskaintzea.
- ✓ Salaketa integrazte beretzako eta, egongo balira, bere seme-alabentzako aukera gisa eta zigorgabetasunaren muga gisa.

5.3.2.- Helburu operatiboak

- Biktimarekin jarduten duten erakundeek ordezkari (bakoitzeko bat edo bi) osatutako talde egonkor eta iraunkorra ezartzea.
- Protokoloaren berrikuste jarraitua egingo duen lan-mahai iraunkor bat eratzea, beharrezkoak diren berrikuntzak eta hobekuntzak bermatzeko.
- Horrelako kasuen harrera, jarraipena eta esku-hartzea sistematizatzea, emakumeei osoko arreta eta homogeneoa eskaintzeko, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan harturik.
- Datu-bilketarako tresnak Datuak Babesteko Bulegoko 1720/2007 Errege Dekretuak dakartzan neurriak kontuan harturik erabiltzea.
- Emakumeen bigarren biktimizazioa ekiditeko hurbiltze-estrategiak ezartzea, eta horretarako beharrezkoak diren tresnak profesionalen esku jartzea.
- Jarraipenaren adierazleak diseinatzea, horrela, parte hartzen duten erakunde eta eremuen ebaluazio koordinatu eta etengabea eginez, lortu beharreko helburuei jarduera bateratuen bidez heltzen zaiela bermatzeko.
- Valle de Trápaga-Trapagarango gizarte eta demografia ezaugarriei egokitutako etengabeko arreta- zirkuitoak diseinatuz, bai biktimekin, bai beren guraso-ahal, zaintza edo jagoletzapean dauden adingabekoekin esku-hartzeko jarraibide eraginkorrak ezartzea.



6.- GIZARTE ZERBITZUEN JARDUNA

Gizarte Zerbitzuak esku-hartze sozialerako jarduteko udal unitateak dira, genero-indarkeriaren zein sexu erasoen kasuan.

Honi dagokionez, honakoa izango da Gizarte Zerbitzuen zeregina:

- Biztanle guztiei egun dauden giza-eskubide eta baliabideen gainean informazioa ematea, balorazioa egitea eta aholku ematea.
- Bortizkeriarik gabeko portaera-ereduak sustatzea (Berdintasunezko II. Planean jasotako estrategia).
- Emakumeak babestuta sentitzen diren ingurugiroa sortuz, beraien aurkako portaera bortitzen prebentzioa hobetzea.
- Kaltetuen gizarteratzea errazteko baliabideak eta bitartekoak eskaintzen dituzten programak garatzea.
- Kasuan kasuko prestazioak arin eta eraginkortasunez kudeatzea.
- Esku-hartzean parte hartzen duten arloak biktimak atzitzeko gune gehiagor hornitzea, arazoak izan arren, hainbat arrazoiengatik Gizarte Zerbitzu Bereziatara inoiz jo ez duten emakumeak detektatu eta bertara bideratzeko bitarteko gehiago izan ditzaten.
- Giza-baliabideak eraginkortasunez erabiliko direla bermatzeko plangintza eta arrazionalizazio-lanetan oinarria izatea.

Parte hartzen duten agenteek une oro honako **jarduera irizpideei** jarraituko diete:

- Emakumeari lehentasunezko eta begirunezko tratu berezia emango zaio.
- Konfidentzialtasuna bermatuko da.
- Emakumeek ez dute artatzen duten profesionalak bere arazoa konponduko duela pentsatu behar; aitzitik, aholku egokiak emanda, haiek berek gaindituko dutelako ideia transmititu behar zaie.
- Eskola bateko langileek ume edo nerabe bat genero indarkeria nozitzen ari delako fundamentuzko susmoak dituztenean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko diete.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskura dituzten baliabideak erabilita ikertuko eta zehaztuko dute zein den egoera eta adin txikikoa babesteko neurri egokiak hartuko dituzte.



- Emakumeek eta bestelako erabiltzaileek zerbitzua segurtasun-gunea dela izan behar dute gogoan, baita prozesu osoan behar duten guztietan bertara jo ahal izango dutela ere.

6.1.- GIZARTE ZERBITZUEN JARDUTEKO PROZEDURA

Emakume bat genero edota sexu indarkeriaren biktima izan eta Gizarte Zerbitzuetara jotzen badu, egun horretan bertan gizarte-abegiko zerbitzuko gizarte-langileak artatuko du.

Biktimari entzun, lagundu eta bere eskubideei eta egin beharreko prozedura judizialei eta izapideei buruzko oinarritzko informazioa emango zaio. Era berean, emakumearen inguruabarra aztertu ondoren, bere egoera psikosozialari ondoen egokitzen zaizkion baliabideak (zerbitzu eta prestazioak) eskainiko zaizkio.

Lehen elkarrizketaren ondoren, dagokion zonaldeko gizarte-langilea esleituko zaio. Beronek, geroko elkarrizketetan ebaluazio sakonagoa eginez, gizarte-diagnostikoa egingo du eta berorren inguruko arreta-plan pertsonala burutuko du, biktimarekin adostuta.

Kasuaren jarraipena egingo du eta emakumearen eta bere ardurapekoen esku-hartzean parte hartzen duten gainontzeko zerbitzuekin (osasun-zerbitzuak, sozialak, psikologikoak, bereziak edo espezifikokoak...) koordinatuko da.

Arestian aipatu dugunez, genero-indarkeria prozesu sozial eta psikologiko oso konplexua da, eta askotariko egoerak eragiten ditu. Hortaz, emakumeak bide ezberdinetatik heltzen dira zerbitzuetara.

Esku-hartzea bi motatakoa izan daiteke: **berehalakoa eta ohikoa**

6.1.1.- Berehalako esku-hartzea behar duten egoeretan nola jardun

Emakumeak laguntza medikoa, psikosoziala edo poliziarena behar duen premiazko kasuetan, laguntza emateko zerbitzuko gizarte-langileak protokoloa abian jarriko du, emakumea Gizarte Zerbitzuen erabiltzailea izan ala ez.

Lesio fisiko edo psikikoek **mediku-laguntzarik behar ez dutenean**, emakumearen edo bere ardurapeko menpekoen segurtasuna edo osotasun fisikoa arriskuan badaude, Polizia- etxera deitu behar izango da laguntza eske eta Gizarte Zerbitzura edo biktimarentzat egokiena den lekura bertaratzeko eskatu.



Emakumeari laguntza emango zaio eta, bere segurtasuna zaintzeko, eta hala dagokionean, seme-alabena ere, bitarteko guztiak bere esku jarriko direla jakinaraziko zaio. Halaber, dituen eskubideen eta erabili ahal dituen baliabideen berri emango zaio.

Lesio fisiko edo psikikoek laguntza medikoa behar dutenean:

- biktimak Gizarte Zerbitzuetara jotzen badu eta lesioak baditu edo, agerikoak ez izanagatik, egon litezkeelako susmoa badago, edota
- sexu-erasoa jasan eta berehala badoa, lehenago osasun-zentro batera jo gabe, gizarte-langileak Udaltzaingoari horren berri emango dio, dagokion prozedura has dadin eta biktima Gurutzetako ospitalera lagundu ahal izateko.

Ondoko lerroetan **sexu-erasoen arretarako jarraitu beharreko prozedura** zehaztuko dugu.

Biktimari ez garbitzeak eta arroparik ez aldatzeak duen garrantzia jakinarazi behar zaio. Halaber, erasoa ahoan pairatu badu, ez jan eta ez edateko esango zaio, gerora prozesu judiziala egotekotan, ezinbestekoak izan daitezkeen frogak ezaba ez daitezzen.

Ertzaintzak ospitalera deituko du, bertako langileak arretarako ekintzak prestatzen has daitezzen. Auzitegiko medikua osasun-azterketa egitera eta laginak hartzera joateko beharrezkoak diren izapideak ospitaleak berak egingo ditu.

Edonola ere, auzitegiko medikuari gertaeraren inguruko datu guztiak emango zaizkio.

Emakumeari hogeita lau orduko zerbitzua duela jakinaraziko zaio, deitu eta abokatuen laguntza izateko. Doako laguntza juridikoa lortzeko ere informazioa jasoko du. Biktima adingabea bada, familiari edo tutoreei abisua emango zaie, edo Bizkaiko Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzura deituko da.

Gizarte langileak emakumea ospitalera laguntzen badu, osasun-azterketa bukatu arte geratuko den ala ez honako baldintzoz arabera erabakiko da:

- Osasun-arazoaren larritasun maila.
- Ospitaleko sanitarioez gain, Gizarte Zerbitzukoek ere artatzen duten ala ez.
- Biharamunean, gizarte-langilea emakumearekin harremanetan jartzen saiatuko da.
- Lortzen ez badu, eta biktima etxean badago, udaltzainak bertaratuko dira, betiere uniformerik gabe eta bereizgarri gabeko autoetan, eta kasuaren bilakaeraren berri emango diote.
- Biktimak ospitalean jarraitzen badu, Udalaren Gizarte Zerbitzuak Gurutzetako Ospitaleko Giza Zerbitzuekin koordinatuko dira, medikuak alta eman arte; gerora, Udalaren izango dute jarraipenaren ardura.



- Biktimari dauden baliabideak eskainiko zaizkio, bereziki *Zutitu zerbitzua*, sexu-eraso eta genero-indarkeriaren biktimaren direnrentzako arreta psikologikorako zerbitzua, hain zuzen.

6.1.2.- Ohiko esku-hartzea behar duten egoeretan nola jardun

Berehalako erabakirik hartzea eskatzen ez duten kasuetan, hau da, emakumea zein bere ardurapeko menpekoentzat, berehalako arriskurik ez dagoenean, edota eraso berriki gertatutakoa ez denean, baina zerbitzu espezializatuen etengabeko laguntza behar dutenean jarduteko orduan, kontuan hartzekoa izango da, prozesuan berehalako esku-hartzeak beharko dituzten egoerak gerta daitezkeela.

6.1.2.1.- Emakumeak indarkeriaren biktimaren dela onartzen duenean

Egoera honetan hiru kasu egon daitezke:

A) Emakumeak banandu nahi du, salaketarik jarri gabe

Gizarte langilearekiko elkarriketan emakumeak tratatu txarrak jasan dituela onartzen badu eta ez salaketarik jarri, ez babesteko agindua eskatu nahi ez badu, egoera kontuan hartuta, berarentzat eta bere ardurapeko menpekoentzat eskura dituen udal baliabideak eskainiko zaizkio:

- **Urgentziazko biziak.** Bai bera, bai bere ardurapeko menpekoak egun batzuetan isilpeko leku batean bizitzeko aukera izango dutela jakinaraziko zaio. Emakumeak nahi edo behar ez badu, bere familia edo gizarte-sarearekin harremanetan jarrita, lekualdatzea baloratuko da.
- **Laguntza psikologikoa.** Beharrezkoa izanez gero, *Zutitu* zerbitzura bideratuko da, edo zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeentzako Laguntza Psikologikorako Zerbitzura.
- **Aholkularitza juridikoa.** Abokatu batekin hitz egin ahal izango du, legezko prozeduren gaineko informazioa eskuratzeko.

Profesionalen ustez, emakumearen edo bizikidetzaren unitateko menpekoen segurtasunerako edo osotasun fisikorako ageriko arriskurik badago, egoerak horrela eskatzen badu, agintari eskudunari horren berri emango zaio (Ertzaintza, Epaitegia)

Aipatutako bidalketa txostena emakumea beste zerbitzu batzuetara bideratzen denean ere erabiliko da, harrera egiten dion erakundeak Gizarte Zerbitzuetako langileekin harremanetan jartzeko modua izan dezan.

Biktimak gertatutakoa ez salatzea erabakitzen badu, Gizarte Zerbitzuek auzitegian beharrezkotzat jotzen dituzten premiazko neurriak eskatu ahal izango dituzte,



abenduaren 28ko Genero-indarkeriaren Kontrako Babes Integraleko Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren 19.4 artikuluan xedatutakoaren babesean. Eskabideok auzitegiaren bidez egingo dira, eraginkortasunez burutzeko.

Dagokion agintaritzari gertatutakoaren berri eman aurretik (Barakaldoko Auzitegian, hain zuzen), biktimak berak salatzea eta babes agindua eskatzea lortzeko ahalegina egingo da; horretarako, honakoa azalduko zaio: salaketa jartzea, eskubidea ez ezik, jasaten ari den harreman bortitzarekin amaitzeko eta Justizia Administrazioak dituen babes mekanismoak (erasotzailearengandiko urruntze-agindua, poliziaren babesa, aita seme-alabekiko dituen eskubideak bertan behera uztea, etxebizitzaren erabilpena, mantenu-pentsioa eta abar) eskuratzeko modua dela.

Era berean, profesionala epaitegian gertatutakoaren berri ematera legeak derrigortuta dagoela azalduko zaio biktimari. Izan ere, agindu hori betetzen ez badu, erantzukizun penala ezarri ahal zaio.

Indarkeriaren biktimak bere ardurapean adingabeko seme-alabarik badu, Gizarte Zerbitzuek, familiaren egoera aztertuta, haien arriskuaren jarraipena egite aldera, Esku-hartze Psikosozialaren Zerbitzuaren edota Gizarte Hezkuntzako Esku-hartze Taldearen beharra dagoen baloratuko dute.

B) Emakumeak banandu eta salaketa ipini nahi du

Behin erreferentziako gizarte langilearekiko elkarrizketan emakumeak tratatu txarrak jasan dituela onartuta eta salaketa ipintzea erabakita, bere eskubideei eta egin beharreko prozedura judizialei eta izapidetarako buruzko oinarriko informazioa emango zaio; bereziki, honakoak aipatuko zaizkio: Poliziaren aurrean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegian edo guardiako epaitegian salatzeak aukera duela, salaketarako edo Babes- Agindua eskatzeko inprimakiak betetzeko doako laguntza juridiko espezializatua izango duela, erasotzailearengandiko urruntzea eskatzea duela, banantze zibilerako oso behin-behineko neurriak eskatu ahal dituela, baldintzak betetzeko gero, Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoaren Zerbitzuaren bidezko doako laguntza juridikoa lortu ahalko duela, eta dauden laguntzak eskatzeko aukera duela.

Beharrezkoa bada, gizarte langileak emakumea Udaltzaingoaren egoitzara lagunduko du. Lehenago, genero-indarkeriaren biktimen arretarako hogeita lau orduko ofiziozko txandakoekin harremanetan jarriko da, haiek ere bertaratzeko.

Emakumeak premiazko bizitokia behar badu, egonaldiaren iraupenaren aurreikuspenaren arabera, Gizarte Ongizateko Sailak erabakiko du zein den baliabiderik egokiena.

Egonaldi laburreko harrera behar badu, langilea Urgentziazko
20



Bizitokirako Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da.

Egonaldi luzeko edo ertaineko harrera behar badu, Bizkaiko Foru Aldundiko foru abegi baliabide zerbitzura bideratuko da; bertara udaltzainek eramango dute.

Emakumeak ohiko bizitokitik **premia handiz alde egitea** beharrezkotzat jotzen bada, Gizarte Zerbitzuen lan-ordutegitik kanpo izanez gero, udaltzainak Urgentziazko Bizitokirako Zerbitzuarekin harremanetan jarriko dira.

Emakumeak **familiakide edo adiskideen etxera** joan nahi badu, erabaki horrek dakartzan arriskuez informatu behar zaio, hots, epaiketa azkarra egin edo Babes-Agindua ezarri arte, ez duela poliziaren babesik izango. Udaltzaingoak babesteko jarraibideak emango dizkio eta zaintza informala egingo du, epaiketa azkarrak dirauen bitartean.

Emakumeak **ohiko bizitokira itzultzea** erabakitzen badu, Gizarte Zerbitzuek *Atenpro* telefonoaren erabilera arako eskabideak egingo dituzte eta, beharrezkoa bada, etxeko zerraila aldatuko diote.

Era berean, beharrezkotzat jotzen diren genero-indarkeriaren kontrako biktimen eskura dauden laguntza eta baliabide guztiak abian jarriko dira: aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, diru-laguntzak eta subentzioak,...

Beharrezko bada, gizarte-langilea ikastetxeko irakasleekin harremanetan jarriko da, urrutze-agindua zertan den argitzeko, zein neurritan dauden inplikaturak zehatz-mehatz azaltzeko eta bai adingabeekin, bai amarekin, aitarekin edo biekin burutu beharreko esku-hartzearen lerroak definitzeko.

Prozesu honetan, emakumeak bere erabakia berriz hausnartu ahal du, eta ez banantzea edo banantzea baina salaketarik ez jartzea deliberatu. Horrelako kasuetan, *Arreta Psikologikoa* baliabidea eskainiko zaio, bere egoera eta erabakiak alaitz ondoen baloratu ahal izan ditzan.

C) Emakumeak erasotzailearekin jarraitzea erabakitzen du

Behin emakumeak gizarte-langileari jasaten ari den egoera bortitza azalduta ere, erasotzailearekin jarraitzea erabakitzen badu, honakoa izango da esku-hartzea:

Biktimari erabaki horrek berari zein bere ardurapeko menpekoei ekar diezazkiekeen balizko arriskuei buruzko informazioa emango zaio.

Berarekin batera segurtasun-plana burutuko da.

Bere eskura dauden genero-indarkeriaren kontrako laguntza eta baliabide guztiak eskainiko zaizkio.

Emakumeak bere ardurapean adingabeko seme-alabarik badu, Gizarte Zerbitzuek, familiaren egoera aztertuta, haien arriskuaren jarraipena egite aldera, Esku-hartze Psikosozialaren Zerbitzuaren edota Gizarte Hezkuntzako Esku-hartze Taldearen



beharra dagoen baloratuko dute.

Kasuaren jarraipena egiteko, emakumearekin aldizkako hitzorduak ezarriko dira.

Profesionalen ustez, emakumearen edo bizikidetz-unitateko menpekoen segurtasunerako edo osotasun fisikorako ageriko arriskurik badago, egoerak horrela eskatzen badu, agintari eskudunari horren berri emango zaio.

Horretarako, Erakundeen arteko II. Hitzarmenak jasotzen duen bidalketa-txostenaren eredia erabiliko da eta biktimari kopia bat emango zaio.

Aipatutako bidalketa txostena emakumea beste zerbitzu batzuetara bideratzen denean ere erabiliko da, harrera egiten dion erakundeak Gizarte Zerbitzuetako langileekin harremanetan jartzeko modua izan dezan.

Biktimak gertatutakoa ez salatzea erabakitzen badu, Gizarte Zerbitzuek auzitegian beharrezkotzat jotzen dituzten premiazko neurriak eskatu ahal izango dituzte, abenduaren 28ko Genero-indarkeriaren Kontrako Babes Integraleko Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren 19.4 artikuluan xedatutakoaren babesean. Eskabideok auzitegiaren bidez egingo dira, eraginkortasunez burutzeko.

Dagokion agintaritzari gertatutakoaren berri eman aurretik (Barakaldoko Auzitegian, hain zuzen), biktimak berak salatzea eta babes agindua eskatzea lortzeko ahalegina egingo da; horretarako, honakoa azalduko zaio: salaketa jartzea, eskubidea ez ezik, jasaten ari den harreman bortitzarekin amaitzeko eta Justizia Administrazioak dituen babes mekanismoak (erasotzailearengandiko urruntze-agindua, poliziaren babesa, aita seme-alabekiko dituen eskubideak bertan behera uztea, etxebizitzaren erabilpena, mantenu-pentsioa eta abar) eskuratzeko modua dela.

Era beran, gizarte langileak biktimari azalduko dio, profesional gisa, legeak derrigortuta dagoela gertatutakoaren berri ematera epaitegian.

6.1.2.2.- Emakumeak indarkeriaren biktima dela onartzen ez duenean:

Kasu honetan, hau da, jasota dagoenean emakumea balizko genero indarkeriaren biktima izan daitekeela, baina berak ez duenean aitortzen, honakoak egin daitezke:

Familiakideek, adiskideek edo auzokideek telefonoz edo Gizarte Zerbitzuetara joanda, ustezko genero-indarkeriaren kasuaren berri ematen dute

Erreferentziako gizarte langileak biktima Gizarte Zerbitzuetara joateko konbentzitzen saiatzeko esango die berri emaileei. Hori ezinezkoa bada, gizarte langilea bera saiatuko da biktimarekin harremanetan jartzen, ahalik eta egokien, haren egoerak okerrera jo ez dezan.

Ikastetxeak Gizarte zerbitzuei jakinarazten die ama edo adingabeak genero indarkeria egoera bat nozitzen ari direlako balizko zantzuak

Kasu honetan ikastetxearek gomendatuko zaio ama Gizarte Zerbitzuetara bideratzeko.



Emakumeak onartzen ez badu, Ikastetxeak amari Gizarte Zerbitzuetan bere egoera bortitzaren berri ematera behartuta dagoela jakinaraziko dio.

Gizarte langileak amarekin hitz egingo du, deribazioaren berri emango dio eta hitzordu bat adostuko du.

Hainbat txandatan huts eginez gero, bere inplikazio eza ikusita, adingabeen egoeraren inguruko informazioa eskolako eta osasun-txostenen bidez edo familiakideen bidez bilduko da. Beharrezkoa bada, txostena Esku-hartze Psikosozialaren Zerbitzura bideratuko da, adingabeen arriskua baloratzeko.

Osasun-zentroak genero-indarkeriaren ustezko kasua detektatzen du

Hau gertatuz gero, sanitarioek emakumeari kontsultatik bertatik Udalaren Gizarte Zerbitzuei deitzeko aukera eskainiko diote. Berak onartzen badu, dagokion gizarte langilearekiko hitzordua emango zaio eta jarduera-protokoloa abian jarriko da.

Emakumea Gizarte Zerbitzuen erabiltzailea da eta ustezko genero- indarkeriaren zantzuak detektatzen dira

Horrela gertatuz gero, Zerbitzutik bertatik edota beste arlo batzuetatik (psikologikoa, juridikoa, psikosoziala...), kasua taldearen aldizkako bileretara eramango da esku-hartzearen nondik norakoak zehazteko.

6.2.- ESKU-HARTZE PROZESUAREN JARRAIPENA ETA AMAIERA

Jarraipena aldizkako txanden bidez egingo da, egoeraren aldaketak ikusteko eta berorien inguruko estrategiak abian jartzeko. Beharrezkoa bada, biktimaren arretan parte hartzen duten eragileak koordinatuko dira.

Jarraipena bertan behera gera daiteke emakumeak horrela eskatuz gero, hitzez edota isilbidez adierazita, indarkeriaren zikloa apurtu duelako, bikote-harremana bukatu duelako, laguntzeko hautazko sarea duelako, bizilekua aldatu duelako, edo bestelako arrazoiren bat dela eta, Gizarte Zerbitzuen esku-hartzerik behar ez duelako.

Jarraipen hori honako arrazoiarengatik ere eten daiteke: biktimak, teknikariek emandako aholkuen kontra, eta bere ustez egokiak diren arrazoiengatik, erasotzailearekin jarraitzea erabaki duelako.

Horrelako kasuetan egoeraren arriskua baloratzean, erabiltzailea eta gizarte langilea bat ez datozenean eta emakumeak Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea eta harremana bera ere etetea nahi duenean, erabakia errespetatu egingo da; hala ere, joan aurretik emakumeari laguntzarako harremanak ez apurtzea oso garrantzitsua dela jakinaraziko zaio. Dena delarik ere, gizarte langileak txostena bidaliko du Epaitegira, erabiltzaileak esku-hartzeari uko egin diola jakinarazteko.



6.3.- RECOGIDA DE DATOS

Bizkaiko Foru Aldundiko Genero-indarkeriaren Behatokiak udalerrietako kasuen inguruko informazioa bildu eta aztertu ondoren, dauden baliabideak abian jartzen ditu gizarte honetako gaitz honi aurre egiteko. Beraz, Valle de Trápaga-Trapagarango Gizarte Ongizateko Sailean genero-indarkeriaren kasuen gaineko datu-basea ezartzea beharrezkoa da, ahalik eta informazio gehien biltzeko eta horrela kasuen azterketa sakona egin ahal izateko. Horretarako, gizarte langileak genero-indarkeria gertatzen denean, Excel txantiloia bete beharko du.

7.- JARDUERA EREMU POLIZIALEAN

7.1.- JARDUERA EREMU POLIZIALEAN

Etxeko eta genero-indarkeriari aurre egiteko, Udaltzaingoak protokolo honen arabera jokatu du, edo hala behar bada, Udaltzaingoak eta Segurtasun Pribatuak Koordinatzeko Zuzendaritzak gai horretarako berariaz argitaratu dituenen arteko 7 zenbakiko prozeduraren arabera, edota Eusko Jaurlaritzako Barne Erregimeneko Segurtasunaren Sailburuordearen Instrukzioek barnean hartzen dituzten printzipio eta jarraibideen arabera. Ertzantzarekiko koordinazioari dagokionez, adostutako Koordinatzeko Protokoloari jarraituko zaio. Protokolo horren arabera, udaltzaingoak dagozkion kasuen babesaren jarraipena egingo du, salbuespenak salbuespen.

* Valle de Trápaga-Trapagarango udaltzaingoaren artean sinaturiko hitzarmenaren originala eransten da, 2010eko azaroaren 30ean egin zen bi polizia kidegoen arteko jarduketa-protokoloari buruzkoa.

ERTZAINZA ETA TRAPAGARANGO UDALTZAINGOAREN ARTEAN GENERO EDOTA ETXEKO INDARKERIA ALORREAN KOORDINATZEKO PROTOKOLOA

1. XEDEA

Protokolo honen xedea da Ertzaintza eta Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzaingoaren eginkizunak genero edota etxeko indarkeria alorrean koordinatzea, dauden baliabideak optimizatzeko eta zerbitzua ematean bikoizketasunak ekiditeko, eta halaber, biktimei tratu



homogeneoa eta kalitatezkoa emateko, dena dela zein polizia kidegora jotzen duten.

2. IRISMENA

Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrian erroldatuta dauden genero edota etxeko indarkeriaren biktima guztiak.

3. TITULARTASUNA

Ertzaintza izango da Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrian erroldatuta dauden genero edota etxeko indarkeria kasu guztien titularra, dena dela lehendabizi esku hartzen duen polizia kidegoa.

Titulartasun honen, praktikan suposatuko du eskumena edukitzea honako eginkizunetan:

- 3.1 Egitatea argitzeko behar diren eginbideak taxutzea eta dagokion Epaitegian aurkeztea atxilotutakoarekin batera, atxiloturik balego.
- 3.2 Salaketak biltzea. Pertsona bat Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzaingoaren aurrera agertuko balitz salaketa bat jartzeko asmoz, Udaltzainek bidali edo lagunduko dute pertsona hori Ertzaintzaren bulegoetara, dagokion eginbideak egiteko.
- 3.3 Harremanak izan biktima edota erasotzaileekin, urgentziako arretaren ondoren.
- 3.4 Genero edo etxeko indarkeria episodio bati buruzko informazio guztia zerntzalizatzea genero edo etxeko indarkeriako espediente baten bidez.

4. PARTEKATURIKO ESKUMENAK

Bai Ertzaintzak eta bai Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzaingoak eskumena izango dute genero edo etxeko indarkeria kasu baten esparruan jarduteko, honi dagokionean:

4.1 URGENTZIAKO ARRETA

Urgentziako arreta emango da genero edo etxeko indarkeria gorabeheraren bat neutralizatzeko baliabideren bat esleitzen denean, norberak edo biktimak edo hirugarrenek eskatuta, edo eskumena duen kidegoak hala eskatzen duenean, une horretan baliabiderik ez edukitzeagatik.

Atxilotetaren bat egingo balitz, dena dela egiten duen polizia kidegoa, Ertzaintza izango da atxilotuaz arduratuko dena, hura eramatea eta atxilotetari dagozkion eginbideak egitea barne.

4.2 ERRUTINEI BURUZKO PREBENTZIO JARDUERAK



Polizia kidego bakoitzak, batez ere, prebentzio jarduerak egingo ditu esleitu zaizkien biktimekiko, eta inguruabarren batengatik ezin badira egin, berehala jakinaraziko zaio udalerrian eskumena duen beste polizia kidegoari, aldi baterako arduratu dadin babesaz. Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzaingoak gunee edota errutinei buruzko atazak burutuko ditu.

Urtarrilaren lehenengo hamabostaldian ezarriko da jarduera horien xede izango diren biktimakopurua eta identitatea, **herriaren kasuistikaren arabera**, bi kidegoetako burutzagitzen artean izango duten bilera batea, eta urte beteko indarraldia izango du, **aipatu kasuistikaren arabera eta aldeetako batek eskatuta, adostutako kopurua berriskustea beharrezkotzat jotzen ez bada**.

Biktima horiek hautatzeko, lehenengo eta behin kontuan hartuko da babeserako kautelazko neurriak hartu diren pertsona horientzat. Biktima-kopurura ez da aldatuko indarraldian zehar, haiekiko neurriren bat desaktibatuko balitz, beste batek ordezkatzeko lehenago aipatutako irizpideen arabera.

Gorago aipatutako babesa gauzatzeko, Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzaingoak Ertzaintzaren Guneko CMC delakoaren zuzeneko laguntza izango du eta jardueraren hasiera, garapena eta emaitza jakinarazioko eta egindako prebentzio jarduera ere bai (gunekoa, errutinakoa, etab.) **Sestaoko Ertzaintxeko guneko CMC delakoak txosten bat irekiko du Valle de Trápaga-Trapagarango udaltzaingoak emandako informazioarekin, eta espedientearen sartuko du (1 eranskina ikusi).**

5. BI POLIZIA KIDEGOEN ARTEAN INFORMAZIOA TRUKATZEA.

Trukatuko den informazioa Valle de Trápaga-Trapagarango bizi diren biktimei buruzkoa zein herrian bizi ez badira ere, jarduera nolabait egonkorra herrian egiten duten biktimenei buruzkoa ere izango da, Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzaingoa arduratzen bada haienganako prebentzio neurri polizialak aktibatzeaz.

5.1 HASIERAKO INFORMAZIOA

Valle de Trápaga-Trapagarango udaltzaingoak etxeko edota genero-indarkeriaren episodiotan baten berri duenean, berehala jakinaraziko dio inguruabat hori Ertzaintzari, eginbideez eta, baldin badago, atxilotuaz arduratu dadin.

Ertzaintzak, ahalik eta eperik laburrenean, fitxa bat emango dio Valle de Trápaga-Trapagarango udaltzaingoari 2. eranskinean agertzen den informazioarekin, prebentzio jarduerak behar dituzten etxeko edota genero-indarkeriaren kasuei dagokienean, 4.2. puntuan ezarritakoaren arabera.



5.2 INFORMAZIOA KASUAREN JARRAIPENA EGITEN DEN ARTEAN

Kasua indarrean dagoen artean, koordinazioaren arduradunek biktimaren segurtasunean eragina izan dezakeen informazioa partekatuko dute, eta, bai behintzat, ingurabar hauetako bat gertatzen bada:

- Biktima edota erasotzaileari buruzko ofizio judizialak jasotzea.
- 1. eranskinetako fitxan dauden datuak aldatzea.
- Biktima edota erasotzaileari buruzko polizia jarduerak.
- Erasotzailea presondegi itxietan sartu edo irtetea.
- Zentro medikuetan sartzea edo irtetea.
- Espedientean behin behingoz artxibatzea eta behin betiko ixtea.

5.3 JARDUERA PREBENTIBOEI BURUZKO INFORMAZIOA

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzainak denbora errealean jakinaraziko dio Ertzaintzari, zernolako prebentzio jarduera egin dituen, etxeko edota genero-indarkeriaren espedientean sartzeko, 4.2 puntuan ezarritakoaren arabera.

6. KOORDINAZIO ORGANOAK.

Polizia kidego bakoitzak izendatuko ditu etxeko edota genero-indarkeriaren episodioen kudeaketaren koordinazioaz arduratuko diren pertsonak.

6.1 URGENTZIAZKO KOORDINAZIOA.

Urgentziako arretaren koordinazioa bi polizia kidegoetako zerbitzburuei dagokie.

Ertzaintzako zerbitzburuaren tfnoa. 944063406

Trápaga-Trapagarango udaltzaingoa 944862644 – 660975222

JARRAIPENAREN KOORDINAZIOA

Sestaoko Ertzaintzaren arduradunak:

-IKERKETA BURUORDEA Luzapena: 66322

-BURU MALGUA Luzapena: 66385

-GI/EI ARDURADUNA Luzapena: 66384

Trapagarango Udaltzaingoko arduradunak:



Dpto. Igualdad y Acción Social
Berdintasun eta Gizarte Ekintza Saila

-UDALTZAIN BURUA

Tfnoa: 660975221

Kasuen jarraipena koordinatzeko arduradunak sei hilabetero bilduko dira, eta jorratuako gaien akta egingo dute Toki Eremuko Koordinazio Batzordera bidaltzeko. Hala ere, ezohiko bilerak egin daitezke inguruabarrek hala eskatzen badute eta hitzarmen honetako bi kideetako edozein buruk eskatzen badu.

Sestaon, 2010eko azaroaren 30ean.



1. ERANSKINA. NEURRI PREBENTIBOAK BURUTZEKO INSTRUKZIOAK ETA AGIRI INFORMATIKOAK.

- Valle de Trápaga-Trapagarango Udaltzaingoko patruilak telefonoz jakinaraziko dio Ertzaintzari (CMC) prebentzio jarduera bati ekingo diotela, behin tokian daudenean. Helbide zehatza emango dio eta adierazio dio zernolako prebentzio jarduera egingo duten (errutinakoa, gunekoa, etab.) jarduera hori poliziaren sistema informatikoan sartzeko, Zutabe jarduketa irekiz.

-Ertzaintzari jakinaraziko zaio, telefonoz, jarduera burutzen den artean antzematen duten edozein gorabehera.

- Babesa emanda, gutxienez 20 minutuz, berehala jakinaraziko zaio Ertzaintzari irekitako jarduketa itxi dezan.

2. ERANSKINA. POLIZIA-FITXA

Espediente:

Biktima

NAN:

Izena:

1. abizena:

2 abizena:

Jaiotze-data:

Helbidea:

Ibilgailua:





ERRUTINAK:

BEREHALA JARDUTEKO PAUTAK

- Erasotzailearen arriskugarritasuna
- Indarkeriazko jarduketak lehenengoko gertakarietan.
- Polizia-aurrekariak.
- Gaixotasunak kutsatzeko posibilitatea.

Biktimak esandako hirugarren pertsonen jakinarazpenak egitea.

- Biktimarekin eta adin txikikoekin egingo diren jarduketak.
- Egin beharreko balizko lekualdaketak
- Bestelakoak.

Erasotzailea

NAN:

Izena:

1. abizena:

2. abizena:

Jaiotze-data: (Urteak)

Helbidea:

Ibilgailua:





7.2.- GENERO-INDARKERIAREN KASUEN AURREKO JARDUERA

Udaltzaingoak gertakariaren abisua telefono-dei baten bidez jasotzen badu (gertatzen ari den momentuan bertan, zein geroago), deia egiaztatuko da, eta komunikatzaileari gertatutakoari buruzko informazio guztia emateko eskatuko zaio Ertzaintzari ahalik eta informaziorik gehien emateko, patruila gertakarien tokira doan artean:

- Gertakariaren deskribapena.
- Gertakarien leku eta ordu zehatza
- Zein telefonotatik eta nondik ari den deika..
- Biktimaren egoera fisikoa zein den eta zein osasun-baliabide behar duen.
- Biktimaren izen-abizenak eta non dagoen.
- Si hay utilización o presencia de armas u otros objetos peligrosos.
- Arma edo bestelako objektu arriskutsurik dagoen edota erabili den ala ez.
- Halakorik gertatzen den lehenengo aldia den ala ez.
- Eta Ertzaintzari emango zio abisu.

Arduradunak erabakiko du zein giza-baliabide erabiliko diren; horiek ahalik eta azkarren bertaratuko dira eta gertakariaren inguruko informaziorik osatuena emango zaie, honakoa, besteak beste:

Gertakariaren deskribapena:

- Leku zehatza zein den.
- Biktima non dagoen. (Bere etxean/ etxe komunean-Astungarria)
- Biktimaren egoera fisikoa zein den eta zein osasun-baliabide behar duen.
- Erasotzailea non dagoen.
- Biktima eta erasotzailearen izen-abizenak eta haien arteko harremana zein den.
- Arma edo bestelako objektu arriskutsurik dagoen edota erabili den ala ez.
- Adingaberik edo menpekorik tartean sartuta dagoen ala ez.
- Deitu duenaren izen-abizenak (biktima bera ez bada), eta biktima eta erasotzailearekiko harremana zein den.
- Halakorik gertatzen den lehenengo aldia den ala ez.
- Antzeko gertakarien lekukorik dagoen.



Genero edota etxeko indarkeria kasuak jakinarazteko egiten diren deiei erantzuteko jarrera

Udaltzaingoak telefono dei baten bidez jasotzen duenean genero edota etxeko indarkeriaren kasuen berri, honela jardungo du komunikatzailearekin:

- Komenigarria da ahotsaren tonua inguruabar eta elkarrizketaren momentuei egokitzea.
- Konfiantzazko tonu baxua eta ahots lasaigarria erabiliko dituzte, eta komunikatzailearenganako interesa erakutsiko dute.
- Entzumen aktiboa agertuko dute eta hitzak ondo ahoskatzen saiatuko dira. Adibidez: “Bai, ulertzen dut”.
- Entzumen pasiboa edota adierazpen bortitzak eta zalantzazkoak ere ekidingo dituzte.
- Ez diote komunikatzaileari gaitzespenik egingo.
- Beharrezkoa bada, adingabeen babesa aholkatuko dute.
- Tresna arriskugarriak kentzea aholkatuko dute, erasotzaileak erabiltzerik izan ez dezan. Egitateen lekua gero go ikuskapenari begira babeste aldera, ezer ez ukitzeko esango dute.
- Bertaratuko den udaltzaingoko patruilarekin zein tokitan elkartuko diren zehaztuko dute.
- Sexu-erasoa ere baldin badago, biktimari bere burua ez garbitzeko esango diote, arropa ere ez garbitzeko edo botatzeko, bestelako ebidentziak gordetzeko eta patruilak heldu arte leku seguru batean itxaroteko.

7.3.- POLIZIEN JARDUERA GERTAKARIEN LEKUAN

7.3.1. Berehalako jarduerak (Udaltzaingoak egin beharreko jarduketak Ertzaintza heltzen den arte. Une horretatik aurrera Ertzaintzaren eskumen izango dira jarduketok).

Gertakariaren neutralizazioa. Berehalako arreta biktimarentzat.



Ertzaintzari eta Gizarte Langileari abisatuko zaie, beharrezkoa bada.

- Erasotzailea bertan badago eta arduradunak delitu edo “in fraganti” egindako falta izan dela uste badu, atxilotetarako irizpide nagusien arabera jokatu du.
- Erasotzaileak arma edo tresna arriskugarririk badu, atzemango da eta dagokion akta egingo da.
- Behin gertakaria kontrolatuta eta biktimari arreta emanda, honako informazioa jasoko da:
 - Egitateen deskribapena.
 - Gertakariaren leku zehatza.
 - Biktima non dagoen.
 - Biktimaren egoera fisikoa zein den eta zein osasun-baliabide behar duen.
 - Erasotzailea non dagoen.
 - Biktima eta erasotzailearen izen-abizenak eta haien arteko harremana zein den.
 - Arma edo bestelako objektu arriskutsurik dagoen edota erabili den ala ez.
 - Adingaberik edo menpekorik tartean sartuta dagoen ala ez.
 - Deitu duenaren izen-abizenak (biktima bera ez bada), eta biktima eta erasotzailearekiko harremana zein den.
 - Balizko lekukoak identifikatzea.
 - Lekualdaketaren beharra.

Poliziaren ikuskapen teknikoa edota gertakarien egiaztapena egin behar den baloratuko da, honako irizpideei jarraituz:

- Leku horretan bertan zein inguruan delituan erabilitako arma, lanabes edo bestelako tresna arriskutsurik egotea.
- Gertakariarekin erlazionatutako ebidentzia fisiko, kimiko edo biologikoak egotea.
- Apurketak eta bestelako kalteak egotea.

7.3.2.- Biktimarekiko jarduera ageriko lesiorik ez duenean

• Gertakaria neutralizatu eta biktimari arreta eman ondoren, osasun-laguntzarik ez duela behar ikusiz gero, honako informazioa emango zaio:

- Salaketa ipintzeko eta Babes-Agindua eskatzeko aukera duela, baita berorien izapideak egiteko abokatu-laguntzarako eskubidea ere; biktima ondo informatuta egoteari emango zaio lehentasuna.
- Biktimak berak jartzen duen salaketaz aparte, polizia-atestatua (ofiziozkoa) egitea duela; bertan gertakariaren zehaztapenak azalduko dira.
Lekualdatzea eginez gero, dagokion epaitegian horren berri emango dela.
- Laguntza ekonomikoak, sozialak, psikologikoak eta lege-aholkularitza



eskura dituela; beroriek eskatzeko lekuak eta telefonoak zeintzuk diren ere, esango zaio.

7.3.3.- Biktimarekiko jarduketak, lesioak baditu, gertakarien tokian

- Sexu-erasoa badago, biktima sexu bereko batek artatuko du, eta biktimari ez garbitzeak eta arroparik ez aldatzeak duen garrantzia adieraziko zaio. Forenseari horren berri eman behar zaiola ere jakin behar du.
- Poliziak eginbideak burutzen dituen artean, ahalegina egingo da biktima eta egitateen balizko egilearen artea ezelako kontakturik egon ez dadin.
- Egilea atzerritarra bada, atxiloketa orokorren kasuetarako gida honetan jasota dagoen bezala jardungo da, atzerritarrentzako berezitasunarekin.

7.4.- JARDUERA BIKTIMA ATZERRITARRA DENEAN

Kasu honetan, gainontzekoekiko tratu bera jasoko dute, salbuespen bakarrarekin: beharrezkoa izatekotan, salaketa jasotzeko orduan itzultzailea izateko eskubidea bermatua izango dute Ertzain-etxean edo epaitegian, udalak ez baidauka interpreterik.

7.5.- BIKTIMAREN ARRETA POLIZIA-ETXEAN

Lehendabizi, zerbitzuko langileak artatuko du, egoera baloratuko du eta biktima leku eroso eta pribatu batera eramateko izapideak egingo ditu. Emakumezkoa bada, ahal delarik, sexu bereko polizia batek artatu beharko du.

7.5.1.- Genero/Etxeko indarkeriaren salaketa

- Genero edota etxeko indarkeria kasu baten berri izatean, zerbitzuko arduradunak atestatua abian jarriko du eta salaketarik bideratu bada, bertan sartuko du.
- Ahal delarik, salaketa-egilea bere sexuko udaltzain batek artatuko du.



- Biktima udalaren giza zerbitzuak artatzen ari badira, salaketan horrela islatuko da espresuki; zerbitzutik informazio hori lortzeko biktimaren baimena beharrezkoa izango da eta dena idatzita geratuko da hark sinatutako idazki batean.

7.6.- KAUTELAZKO NEURRIAK URRATZEA EDO ZIGORRA EZ BETETZEA

- Epaitegian ezarritako kautelazko neurrien urratze hutsa ez da akzio penaltzat hartuko, baldin eta genero/etxeko indarkeriazko deliturik errepikatzen ez bada, beraz, ez da prozedura horren barruan egongo.
- Kasu horretan, Justizia Administrazioaren kontrako delitua izango da.
- Babes Aginduan ezarritako urruntze-neurriak urratuz gero, biktimaren baimena egon arren, kondena-urratzea izango da. (2008ko azaroaren 25eko Auzitegi Gorenaren Akordioa). Horrelako kasuetan biktima ez da atxilotuko; arduradunak behin egoera aztertuta, egin beharreko izapideak abian jarriko ditu, baita atestatuan auzitegian jakinarazteko berariazko idazki batean adierazi ere.
- Honek guztiak ez du ekidingo neurri-urratzailearen zigorra (atxilotzea edo egozte).
- Aldian-aldean –protokoloan ezarritako epeetan– egiten diren arrisku-mailaren bilakaeraren estimazio guztiak eta bakoitza, antzemandako arrisku-faktore nagusiei buruzko txostenarekin batera. Faktore horien barruan sartu beharko direlarik, gertatuz gero, alde aurreko salaketa(k) kendu izana, lehenagoko babes neurriei uko egin izana eta bizktima eta erasotzailea berriro bizitzea elkarrekin.
- Agintari judizialaren edo Fiskaltzaren eskariz, eta inguruabarretan edo biktima zein erasotzailearen portaeran aldaketa nabariak antzematen direnean egiten diren arrisku-mailaren bilakaeraren estimazio guztiak eta bakoitza, antzemandako arrisku-faktore nagusiei buruzko txostenarekin batera. Faktore horien barruan sartu beharko direlarik, gertatuz gero, alde aurreko salaketa(k) kendu izana, lehenagoko babes neurriei uko egin izana eta bizktima eta erasotzailea berriro bizitzea elkarrekin.
- Epaileak erabakitako babes polizialeko neurrien eta poliziak egindako arrisku-balorazioaren ondoriozkoen artean dauden desadostasunak.
- Protokolo hau indarrean sartu baino lehenagoko arrisku-balorazioen berrikuspenak.

7.7.- SEXU-ERASOEN AURKAKO JARDUERAK

Biktimari ez garbitzeak eta arroparik ez aldatzeak duen garrantzia jakinarazi behar zaio. Halaber, eraso ahoan pairatu badu, ez jan eta ez edateko esango zaio.

Biktimaren ardurapean adingabekak daudenean:



- Biktimak haien ardura hartu ezin duenean, berak aukeratutakoaren tutoretzapean egongo dira, edo bestela familiakideekin.
- Hori egingarria ez bada, lan-ordutegiaren barruan bada, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri beharko da, edo ordutegi horretatik kanpo izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzuarekin edota Adingabeen Fiskaltzarekin.

Biktimari jakinaraziko zaio beharrezkoa dela salaketa jartzea balizko erasotzaileari judizialki pertsegitzeko.

Halaber, babes agindu bat eskatzeko aukera duela jakinaraziko zaio eta eskubidea duela etxeko indarkeriaren edo eraso sexualen biktimenezko berriazko doako abokatu baten aholkularitza jasotzeko, bai salaketa jartzean eta bai babes aginduaren eskabidea egitean.

Biktimak abogatu espezializatu baten aholkularitza eduki nahi badu izan poliziaren bulegoetan, salaketa jarri baino lehen, horretarako behar diren kudeaketak egingo dira.

Biktimarentzako arreta

Biktimak bere burua arriskuan ikusten badu, edo hala eskatzen badu, bai berari, bai bere ardurapeko seme-alaba adingabeei beharrezkoa bada, biktimak berak aukeratutako ordeko etxebizitza batera lagunduko zaie (familiakideen etxera, adiskideenera, e.a.)

Era berean, beharrezkoa bada, ohiko etxebizitzara lagunduko zaio arropa eta bestelako premia-premiazkoak hartzeko.

Biktima Larrialdietarako Osasun Zerbitzura, Gizarte Zerbitzuetara edo etxebizitzara eramane behar bada, lekualdatzea, ahal delarik, bereizgarririk gabeko autoetan egingo da.

Era berean, bai arreta egiteko, bai bidaian doan polizia-taldean gutxienez emakumezko bat egotea komeni da.

Gizarte zerbitzuetara informazioa ematea.

Dena dela ematen zaion informazioa eta emakumeak salaketa jartzen duen ala ez, udaleko Berdintasun eta Gizarte Ekintza Sailari jakinaraziko zaio, emakumeak baimena ematen duenean informazio hori emateko.



DENA DELA BIKTIMARI EMATEN ZAION INFORMAZIOA, BERREZIKI GARRANTZITSUTZAT JOKO DA KASUA GIZARTE ZERBITZUETARA BIDERATZEA.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak biktimarekin harremanetan jartzeko ahalegina egingo dute informazioa emateko eta haren eskura jartzeko bere egoera pertsonalerako egokiak diren gizarte zerbitzuak. Lehenengo eskuhartzearen ondoren, Gizarte Langileak Udaltzaingoari edo Ertzaintzari jakinaraziko die.

8- ERAKUNDEEN ARTEAN KOORDINATZEKO MEKANISMOAK

Hau sinatzen duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta protokolo honetan dauden edukien jarraipena eta burutzapenen ebaluazioa egiteko, Erakundearteko Koordinazio Mahai bat eratuko da, protokoloa eratzeko lan taldeak osatuko duena.

Koordinazio esparruari dagokionean, ezartzen da eguneratze prozesuan taxutzen den protokoloak argi eta garbi mugatu behar duela gizarte eragile bakoitzaren erantzukizuna eta Koordinazio Mahaian figura bat egon behar dela, harengana jotzeko eta erreferente gisa jardungo duena.

Koordinazio honen azken helburua da sare bat sortzea emakumeei laguntzeko eta eusteko euren ibilbide osoan eta biktimizazio sekundarioa ekiditea. Sare hori, halaber, funtsezkoa izango da erakundeen arteko lana errazte aldera irizpideak eta esperientziak trukatu direlako eta, aldi berean sarea, ere sendotuko delako.

Koordinazio protokolo bat eratzea ez da prozesu tekniko hutsa. Izan ere, aukera bat da esku hartzen duten eragile desberdinak elkar ezagutzeko, eztabaidatzeko eta elkarren artean fintzeko lanerako egokiak izango diren mekanismoak eta prozedurentzako irizpideak. Hortaz, prozedura horiek denbora, lana eta dedikazioa behar dute lanerako tresna baliagarriak izango badira.

8.1.- Partaideak

Mahai honetan egongo dira Berdintasun eta Gizarte Ekintzako zinegotzia eta Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrian erakunde desberdinetan arreta ematen duten teknikariak, hots

1. Berdintasun eta Gizarte Ekintza Saileko zinegotzia.
2. Udaleko Gizarte Langilea.
3. Valle de Trápaga-Trapagarango Berdintasuneko eragilea, figura hori existituko balitz.
4. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako administraziooko langileak
5. Udaltzainburua
6. Ertzaintza:



- Sestaoko unitateburua
- Genero edota etxeko indarkeria unitateko agentea

7.Osakidetza:

- Valle de Trápaga-Trapagarango Lehen Arretako Unitateburua

8. Ikastetxeak

- Zuzendaria.
- Orientatzailea

8.2.- Eginkizunak

- ✓ Urtero aztertzea Berdintasun Sailak egindako esku hartzei buruz aurkezten dituen datu orokorrak.
- ✓ Azterketa horietatik eratorritako proposamenak eratzea eta dagozkion instantzietara bidaltzea beharrezkotzat jotzen diren baliabide eta prozedurak hobetze aldera.
- ✓ Biktimen arretaren inguruan erakunde sinatzaileek egindako lanaren urteko memoria bat eratze eta dagozkion erakundeetara bidaltzea garrantzitsutzat jotzen diren ondorio eta balorazioak.
- ✓ Erakundeen arteko koordinazioaren arintasuna bermatzea.
- ✓ Protokolo honetan jasota ez dauden eta berehalako erantzuna eskatzen duten alderdi operatiboak ebatzea.
- ✓ Protokoloa abian jartzearen ondorioz sor litekeen edozein gorabeherari erantzutea.

Beharrezkotzat jotzen badu, batzorde honen kanpoko aholkularitza eduki dezake bere eginkizunak burutzeko.

8.3.- Aldizkakotasuna eta deialdia

Koordinazio mahai hau **egokitzen jotzen denean eta inplikaturiko eragileren batek eskatzen duenean** edo beharrezkoa den guztietan bilduko da. Haren deialdia Berdintasun eta Gizarte Ekintza Sailak egingo du, idatziz, eta gutxienez 15 eguneko aurretiak, ohiko bileren kasuan. Berdintasun eragilea, edo figura hori ez bada existitzen, Gizarte Langilea arduratuko da deialdiak egiteaz eta batzarrak dinamizatzeari. Saileko administrariak egingo ditu aktak.



Mahaiko edozein kidek deitu ditzake urgentziako ezohiko bilerak, egun bateko aurretiaz.

9.- UDALAREN ERABAKIAK ETA EKINTZA PUBLIKOAK

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren eta eskumena duten agintarien betebeharra da genero indarkeriarekiko gizartearen arbuioa lortzeko kanpainak, politikak eta ekintzak burutzea. Horretarako, herrian ezagutzen diren indarkeria egoera desberdinei erantzun proportzionala eta egokia ematen saiatuko da, era honetara:

- Zuzeneko babesa erakutsiz genero indarkeriaren biktima diren emakumeei, beti ere kasua ezagutzen denean, salaketa jarri ala ez. Emakumeen eta familien pribatutasuna inbaditu gabe, behar duten laguntza bermatuko zaie eta jakinaraziko –zuzenean edo udal zerbitzueta teknika bidez– udal agintariei prest daudela egiten dizkieten eskariak asetzeko.
- Publikoki adieraziz genero indarkeria kasuekiko arbuioa, hala eskatzen dutenean emakumeek edo bere senitartekoei eta haiek kide diren elkarteek.
- Herritarrei deituz errefuxatzeko eta babesa emateko ekintzetara, beharrezkotzat jotzen direnean, emakumen batek, haren familia edo hura kide den elkarteak eskatzen duenean, edo emakume elkarteek egiten duten deialdia babestuz.
- Herritarrei deituz publikoki adieraztera bere arbuioa manifestazio publikoetan edo errefusatzeko komunikatuak eginez EAEn indarkeria matxistaren ondorioz emakumeren bat erailten dutenean.
- Udal agintariei genero indarkeriaren aurkako aldarrikapen publikoa eginez, azaroaren 25eko sentsibilizazio jardueren barruan.
- Kontuan hartuz Eudelen eskuliburua “Emakumeen aurkako indarkeri ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak”.

10.- HERRIKO EMAKUME BAT GENERO INDARKERIAGATIK ERAILTZEN DUTENEAN EDO SEXU-ERASOAK NOZITZEN DITUENEAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA.

Eskudun agintarien bidez jakiten denean herriko emakumeren bat genero indarkeriaren ondorioz erail dutela edo sexu-erasoak nozitu dituela:



- Alkateak osoko bilkura deituko du, gaitzespenerako adierazpen instituzionala onartuko du eta dei egingo die herritarrei egokitzat jotzen diren ekitaldietan (elkarretaratzea, manifestazioa...) parte hartzera.
- Alkatea, teknikariak tarteko, biktimaren familiarekin jarriko da harremanetan hark behar duen babesa eskaintzeko: lege aholkularitza; krisi egoeretarako laguntza psikologikoa; dolu prozesurako babesa; laguntza ekonomikoa, beharrezkoa izango baliz; gorpua aberriratzeko kudeaketetan laguntzea, beharrezkoa izango balitz, beste senide batzuei informazioa ematea Estatuaren barruan edo atzerrian.
Jarraipena egingo zaie genero indarkeriaren ondorioz erail edo sexu-erasoak nozitu dituzten emakumeen senideei, kasu bakoitzean, behar dituzten baliabideak emateko.
- Eraildako emakumearen seme-alabak eta beste senide batzuk indarkeria horren biktimatzat hartuko dira eta horren ondorioz aintzatezpen publikoa behar dute jasaten duten estigmatizazioa desagertarazi eta suspertu ahal izateko.
- Udalak herri ekintza gauzatuko du, egokitzat jotzen badu.
- Alkateak, teknikariak aholkatuta, prentsarekin hitz egingo du, bereziki zainduko duelarik informazioa zehatza eta egoerarako egokia dela, eta horretarako hizkuntza ez sexista eta ez baztertzalea erabiliko du.